

Euskal industriaren negozio-zifra %2,2 jaitsi zen 2013an


Atzerrirako salmentak, euskal manufaktura-industriaren fakturazioaren %36,2

2013an 54.443 milioi izan zen Euskal AEko industriaren negozio-zifra, %2,2ko jaitsiera nominala, Eustaten datuen arabera.

Manufaktura-industriaren negozio-zifra 46.912,9 milioi izan zen 2013an, %2 gutxiago 2012an baino. *Erauzketa industriak, Ur horniketa eta saneamendua eta Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* kanpo geratzen dira.

Atzerrira eginiko salmentak, euskal industriaren %36,2; 2008an -krisiaren hasieran- baino ehuneko 3,8 puntu gehiago. Salmenta osoen %22 ia, Europar Batasunera; %14,5, Munduko gainerakora. Estatuaren gainerakora, %26,3.

1.-. grafikoa. Euskal AEko industriaren norakoa. %. 2013



Iturria: Eustat. Industriaren estatistika

Euskal industrian, guztira, 7.541 enplegu galdu ziren; enplegudunak, 195.633 2013an, aurreko urtean baino %3,7 gutxiago. Langile gastuak %2,1 jaitsi ziren. Inbertsioa %34,7 gehitu zen.

1. koadroa. Industriaren aldagai nagusiak. Euskal AE. Urteko prezioak (mila €)

	2013	Δ %
Landunak NU	195.633	-3,7
Negozio zifraren zenbatekoa guztira	54.443.484	-2,2
Hornimenduak	33.861.923	-0,4
Kanpo-zerbitzuak	7.596.364	-3,1
Lagileria-gastuak	8.467.282	-2,1
Egindako inbertsioak	2.682.959	34,7

Iturria: Eustat. Industriaren estatistika


Sektoreka, negozio-zifra handiendunak: *Metalurgia eta metalezko produktuak* (%25,2), *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (%12,5), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (%11,7), eta *Garraio-materiala* (%10). Langile gehien aritutako sektoreak 2013an: *Metalurgia eta metalezko produktuak* (%33,7), *Makineria eta ekipoa* (%10,4), *Kautxu eta plastikoa* (%9,5).

Bost sektoretan gehitu dira salmentak: *Elikadura-industriak, edariak eta tabakoa* (%15,4), *Produktu farmazeutikoak eta Erauzketa-industriak* (%10,5 bietan), *Produktu informatiko eta elektronikoak* (%1,8), *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (%0,4). Salmenta-jaitsiera nagusiak: *Altzariak eta beste manufakturak* (%-10,8), *Material eta ekipa elektrikoa* (%-9,3), *Kautxu eta plastikoak* (%-6,2), *Garraio-materiala* (%-5,3).

Enplegu-galera nagusiak: *Material eta ekipa elektrikoa* (%-9,7), *Kautxu eta plastikoak* (%-7,2), *Altzariak eta beste manufakturak* (%-6,8), *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (%-6,4). *Garraio materialean* %4,7 positiboa.

Gipuzkoan %4,8 jaitsi da negozio-zifra; Araban %3; Bizkaia lehengoan (%0); 2012.aren aldean. Enplegua jaitsi egin da hiru lurraldeetan: %5 Bizkaian, %3,2 Gipuzkoan, %2,2 Araban.

2. grafikoa. Euskal AEko industriaren negozio-zifraren sektore-bilakaera. %. 2012-2013



Iturria: Eustat. Industria estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
Euskal AEko industriaren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago
Euskal AEko industriaren estatistikari buruzko datu-bankua